

## 72 ardi hil dituzte txakurrek Basozabalen

Artaldea Ramon Mugertza artzai hernaniarrarena da. Milioi eta erdi inguruko galera.



Ramon artzaia txakurrek hildako ardiei begira, atzo.

OSTIRAL gauean, 23:15 inguruan, *Basozabal* baserrikoak ohartu ziren sarraskiaz: txakurrak (lau bat izan omen zitezkeen) Ramon Mugertzaren artaldean sartu ziren; ardi bakarra azaldu da kozkatua, gainerako 71ak isturaren kontra elkar itota hil dira herio horretan; beste asko *Basozabal*goek atera zituzten bizirik.

**“EZ DA LEHEN ALDIA”**  
Halaxe esan digu Ramonek. Iaz bost salaketa jarri omen zituen txakurren erasoak medio. Hernani inguruan oso artzai gutxi dira artaldea kanpogan dutenak, eta berak ere aitortzen du “artzantza mota hau utzi eta ardiak ikuiluan edukitzera behartuak gaude zerbait egiten ez bada”.

**TXAKURRAK ASKE**  
Gauean, jendeak txakurrak aske uzten ditu, eta abandonatuak ere asko dira. “Batidak egin beharko lirakeke” dio Ramonek. Atzo, salaketa jarri zuen, esperantzarik gabe, ordea: “Lehenago ere jarri izan ditut eta inor ez da kargu egiten”. Neurriak aurretik hartzea omen da erremedioa. □

### ■ WATERPOLOA

## Hernaniko mutilek lider ekingo diote gaur eibartarren kontra

Orain artean lau partidu jokatu eta denak irabazi dituzte. Gaur, 13:00etan.



Hernaniko waterpoloko taldea atzoko entrenamenduan.

HERNANIKO waterpoloko taldeak Eibarkoaren kontra jokatu du gaur eguerdian kiroldegiko igerilekuan. Gipuzkoako ligan, gaur arte jokatuak denak irabazi dituzte eta lider daude 12 punturekin. Eibartarrak, berriz, bigarren daude sailkatuak 9 punturekin. Denera lau talde daude Gipuzkoako Ligan eta beste biak puntuetan oso urruti daude.

**EUSKADIKO LIGA**  
Aste gutxi barru bukatuko da Gipuzkoako Liga eta abendu aldera Euskadikoa hasiko da. Hernani sartuko da, baina, han, orain artekoa baino lan zailagoa izango du. □

## Asteartean zabalduko da kiroldegiko taberna

Jaione Raia hernaniarrak hartu du eta goizeko zazpietatik gaueko hamarrak arte egongo da irekita.

KIROLDEGIKO taberna itxita egonda ekainaz geroztik, eta etzi goizean zabalik izango da berriro. Lau hilabetez itxita egoteak badu bere arrazoia, Kiroldegiko arduradunek Kronikari esan diotenez. Aurrekoak utzi eta beste batak hartzeko deialdia egin zenean, ez zen inor aurkeztu.

Deialdia berriz egin behar izan zen, eta horrek gaur arte luzatu du kontua.

**MANTENIMENDUA**  
Tabernako solairuaren mantenimendua tabernariaren ardura da; beraz, asteartetik aurrera komunak-eta zabalik egongo dira. □

### ■ SASKIBALOA

## Atletiko UPV eta Viajes Marfil lehen postuaren bila

Partidua gaur, igandea, 12:00etan Kiroldegian.

LEHEN Mailako Saskibalo partidua izango da gaur Hernaniko Kiroldegian. Aurren bigarren doaz *Atletiko UPV* donostiarrak eta *Viajes Marfil* iruñarrak, jokatuak bost partiduak irabazita; gaur punturik gehien sartzen dituenak jarraituko du lehen postuan, beraz.

**SASKIBALOA HERNANIN**  
Talde guztiak deseginda (kirol eskolarrean izan ezik), Hernanin ez da saskibalo partidu asko ikusteko aukerarik. Orain, ordea, Atletiko UPV taldeak Hernanin entrenatzen du, eta zenbait partidu bertan jokatu dituzte. □


### ■ PELOTA

## Esنال eta Laskurain txapeldun Gipuzkoako Openean

Finala 22-18 irabazi zieten Ansotegi-Errastiri, ostiral gauean, Urnietan.

FINAL gogorra jokatu zuten ostiralean, lau pelotariak. Bi atzelariak oso seguru aritu ziren eta partidua luzea joan zen; tantu politak ere izan ziren. Iñaki Esnalek “asko sartu naiz, baina pelota ez det gehiegi gozatu” esan zuen.

**LAUTERDIKOA KIROLDEGIAN**  
Iñakik ostiralean gaueko 22:00etan jokatu du final laurdena Badiolaren kontra. Kontrario zaila eta taktika “22 berak baino lehen egitea” Esnalek berak esana. □



mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

MARI FERRER  
ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkolaga 17  
943 55 04 89 943 55 27 41  
HERNANI



## 200 lagun eta umore ona atzo Olinpiadetako sari banaketa bazkarian

Azaro-abenduan asteburu pasa antolatuko dute, aurrera begira zer egin aztertze.



Platano dantzako irabazleak, soka azpitik pasatzen... aurretik platanoa ahoan dutela ordulaurden dantzan ibili eta gero!

OLINPIADETAKO taldeek plazan egin zuten atzo bukaera ekitaldiko bazkaria, hegohaize ederra lagun zutela. Antolatzaileek Olinpiaden balorazioa oso ona egin dute, bere garaian ezin bukatua lastimatzat jo arren. "Baina, horrelako giroak, berriz ere zerbait antolatze gogoia ematen du.

**SARIAK**  
Taldeen Hernaniko presoek egindako sariak jaso zituzten. Bukaerarako, talde batentzat zozketatu zuten; zozketan sartzeko, ordea, bi proba egin behar zituen talde bakoitzak: irrintzia bota eta platano dantza. Hura espektakulua! 3/4 taldeak eraman zuen afaria.

**ABALTZISKETARA**  
Etorkezunean zer egin pentsatzeko Abaltzisketara asteburu pasa antolatuko dute. "Asmoa da oinarri-oinarritik hasia; jendeak zein behar ikusten dituen, jende berria nola erakrri...helburu handiegiak planteatu gabe". Azaro bukaeran edo abendu hasieran izango da. □

### 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

## Hernanik 2 - Bergarak 2

0-2 galtzen joan eta azken 20 minututan berdindu zuten, Insausti eta Lasaren golei esker.



Garmendiaren aginduak ez ziren nahikoa izan irabazteko.

TALDE zuri berdearen bi garraipeneko susperraldia bi berdinketek eten dute. Atzo, partidua hasi eta segituan sartu zuten gola Bergarak. Atsedendaldira 0-2 galtzen joan

ziren. Bigarren zatian bergararrak 10ekin jokatu zuten, eta Hernanik hori aprobetxatu zuen berdinketa lortzeko. Datorren asteburuan UPV/EHUrren kontra du, Zubipen. □

### ZINEA BITERIN

## Gaur 'Evasión en la granja' botako dute

BITERI kultur etxeko zine denboraldia hasi da. Gaur arratsaldeko 17:00etan eta 19:30etan botako dituzte *Evasión en la granja* marrazki bizidunak. Pelikularen bi zuzendariak Peter Lord eta Nick Park dira. □

### IRAGARKI

#### MERKEAK

Neska bat behar da goizez, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

☎ 629- 126020



Laguntzaile:



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak

### HITZ BITAN



Hernani Institutuko koadrila Iruñeako Planetario aurrean.

### ✓ HERNANI INSTITUTUA

Joan den asten hernaniko institutoko talde bat Iruñeako planetariora joan zen. Hasteko Brasil aurkitu zuteneko erakusketan barrena ibili ziren; eta ondoren, izarren sorrera, bizia eta heriotzari buruzko programa ikusi zuten: Supernova. Etxera bueltan, Erreniegako haize errotetan gelditu eta haizea energia elektriko nola bihurtzen den ikusi zuten.

### ✓ ORDU ALDAKETA

Bart aldatu da ordua. Hirurak jo dutenean ordubiak izan dira berriz ere. Lo egiteko ordu bete gehiago, baina agian beranduegi konturatu zara...□

### GAURKO PARTIDUAK

#### ■ FUTBOLA

*Emakumezkoen Liga*  
Usabalen, Tolosan, 12:15etan.  
Tolosa-Hernani  
*Gorengo Maila*  
Gal-en, Irunen, 14:45etan.  
Gwendolyne-Hernani  
*Gazteen Ohorezko Liga*  
Zubipen 11:00etan.  
Hernani- Sporting Herrera  
*Kadeteen Ohorezko Liga*  
Berion, Donostian, 10:30etan  
Sto Tomas Lizeoa - Hernani  
*Haurren Ohorezko Liga*  
Herreran 10:30etan.  
Lengokoak- Hernani

#### ■ BOLEIBOLA

*Euskadiko liga*  
Corrales de Buelnan 17:00etan  
Corrales Justina - UPV

#### Hernani

#### ■ WATERPOLOA

*Gipuzkoako Liga*  
Kiroldegian 13:00etan  
Hernani - Eibar

#### ■ SASKIBALOA

*Lehen Maila*  
Kiroldegian 12:00etan  
Atletiko UPV-Viajes Marfil

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

#### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gomez Justel  
Nagusia, 15  
☎ 943 554892  
▶ Gaeuz: Arzallus  
Andoain, Plazaola 17  
☎ 943 591514



### SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

#### AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...